


Euskal AEko industri jarduera %5,1 gehitu zen 2017ko abuztuan

%2,5eko gehikuntza 2017ko lehen zortzi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2017ko abuztuan %5,1 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2016ko hil beraren aldean. 2017ko lehen zortzi hiletan %2,5eko hazkundea, 2016ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %5,5 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2017ko uztailarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2017ko abuztuan, 2016koaren aldean: *Energia* %16,0 gehitu; *Bitarteko ondasunak* %9,9; *Kontsumo ondasunak* guztira, %1,9. *Kontsumo ondasun iraunkorrak* %14,8 gehitu; *ez-iraunkorrak* %0,9 jaitsi. *Ekipo-ondasunak* %5,1 jaitsi.

2017ko abuztuan uztaillaren aldean: *Energia* %1,9 jaitsi. *Bitarteko ondasunak* %6,3 gehitu; *Ekipo-ondasunak* %5,8; *Kontsumo-ondasunak* %3,7. *Iraunkorrak* %5,6 gehitu, *ez-iraunkorrak* %2,8.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2017ko abuztuan, urte artean: *Kautxu eta plastikoa* %17,8 gehitu; *Energia elektrikoa gasa eta lurruna* %16,5; *Metalurgia eta metalezko produktuak* %10,7. Jaitsierarik handienak urte artean: *Garraio materiala* %-9,8; *Material eta ekipo elektrikoa* %-5,2; *Zura, papera eta arte grafikoak* %-3,3.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunderik handienak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	10,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	16,5
09 - Kautxua eta plastikoa	17,8
13 - Makineria eta tresneria	4,2
14 - Garraio-materiala	-9,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-5,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, urte artekoa positiboa hiruretan: Bizkaian %5,6; Gipuzkoan %5,2; Araban %4,2.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde- tasak. Behin-behineko datuak. 2017ko Abuztua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Abu2017 / Abu2016	A(Abu2017) / A(Abu2016)(*)	Abu2017 / Uzt2017	Uzt2017 / Eka2017
Indize orokorra				
Euskal AE	5,1	2,5	5,5	-0,7
Araba/Álava	4,2	2,5	5,7	-2,4
Bizkaia	5,6	4,2	3,4	-0,7
Gipuzkoa	5,2	0,8	7,5	0,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	1,9	2,5	3,7	-0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	14,8	16,2	5,6	1,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,9	-2,4	2,8	-1,0
Ekipo-ondasunak	-5,1	-1,1	5,8	-2,9
Bitarteko ondasunak	9,9	5,2	6,3	-0,1
Energia	16,0	3,2	-1,9	2,0

(*) 2017ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2016eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62